

## GUITARRA

### Jarduera

Hari-instrumentu honen ezaugarriak eta jotzeko teknikak ezagutzea.

### Deskribapena

Gitarra jotzen ikasteko lehenengo pausuak ikasiko dira ikastaro honetan. Melodia desberdinak, erritmoak, akordeak eta eskalak landuko ditugu, besteak beste.

### Helburuak

- Ikaslearen musikarekiko interesa piztea.
- Gitarraren tekniketan sakonduz ondo pasatzea aurrerapen pertsonalarekin.
- Kurtsoa bukatzean ikasleek erreminta asko edukitzea haien kabuz gehiago sakontzeko.
- Euskal kulturaren parte den bertako musika lantzea.
- Ikasle bakoitzak bere erritmoan jarraitzea.

### Programa

#### 1. Hiruhilekoa

- Solfeo minimo bat ikastea kurtsoan zehar kontzeptuak ulertzeko. Tablaturak eta musika idazteko modu ezberdinak irakurtzen ikastea. Akordeen izenak ulertzea.
- Melodiak jotzen ikastea teknika eta postura onak hartzeko hasieratik.
- Erritmoa eta abesti sinpleak praktikatzea.
- Gitarran notak non dauden ikastea.

#### 2. Hiruhilekoa

- Musikaren estruktura ulertzen hastea, akordeak, eskalak...etab.
- Erritmoa eramateari garrantzia ematea.
- Eskala musikal batzuk ezagutzuz inprobisazioa sustatzea.
- Akordeen arteko aldaketak lantzen jarraitzea kantu sinple gehiagorekin.

#### 3. Hiruhilekoa

- Zubitodun akordeekin hastea.
- Abesti konplexuagoekin saiatzea.
- Etxean lantzen jarraitzeko erremintak jasotzea ikaslearen gustuko abestiak jotzeko.

## Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea.

## Nori zuzendua

Helduak.

## Ikasleak eraman beharreko materiala

Gitarra bat. Boligrafo bat eta karpeta bat apunteak gordetzeko.